

Udalak Gobernu Zentraletik 3,1 miloi euro jasoko ditu

Lasarte-Oriako Udalak Estatu espainolek 3,1 milioietako dirulaguntza jasoko du Tokian Tokiko Inbertsioko Estatuko Funtserako. Aurrekontu honekin Udalak Oriako pabiloien atzeko aldeko eraberritzea, frontoi berria eta padel pista bat eraikiko ditu.

Azken Gobernu Batzarraren onartu zituzten arestian aipatutako bi proiektuak eta aurreko astearen prentsaurrean aurkeztu zituzten. Alkatearen hitzetan, "Gobernu Zentraletik jasotako dirulaguntza proiektu handietara bideratzea erabaki dugu eta uste dugu egitasmo eraldatzaileak, sozialak eta ingurugiroa konstantan hartuko dituztenak direla". Honen harira, "proiektu hauek lana sortaraziko dute eta denboran mantenduko dira".

Pasealeku berria

Oriako pabiloien atzeko aldea eraberritzeko egitasmoan 2.320.031 euro inbertituko ditu Udalak. Oriako zubitik hasi eta Lasarteko norantzan 527 metrotako pasealekua jasotzen du egitasmoak. Industrialdeako zona edo "hiri-espazioa berreskuratzea" du helburu proiektuak alkatearen hitzetan, "lbaia erribera berreskuratuko da horrela, oinezkoentzako ibai ondoko pasealeku bat lortuz eta gune berdeak eraberrituko dira". Proiektu honek ibaiaren ondoan dauden pasealekuei jarraipena eman nahi dio. Horrela, pasealeku eta bidegorria Oriaren hasi eta Michelinera arte luzatuko da.

Pasealekuak lau metrotako zabalera izango du, bi metrotako espaloia eta beste bi



Udal kiroldegia ondoan eraikiko dituzten kirol instalazioak: padel pista bat eta jarraian frontoia.

metro bidegorriarentzat izango dira.

Frontoia eta padel pista

Kiroldegi ondoan eraikiko dute padel pista bat eta frontoi berria. "Proiektu honek irtenbidea emango dio Oken-don aurreikusita zegoen frontoiaren lekualdaketari Loidi-Barren eremura". Bi eraikin izango dira, bata bestearen ondoan: udal kiroldegia ondoan padel pista eta jarraian frontoia. Proiektuaren aurrekontua 793.540 eurokoa da.

Padeleko pistaren paretaren atzeko aldea prestatuta utziko dute rokodromo bat egiteko. "Aurrekontu honetan ez da sartu, baina hurrengo urtean edo egiteko asmoa dugu". Rokodromoa eraikinetik kanpo geratu arren, padel pistako estaldurak gune hau babestuko du. Instalazio berri

hauen estaldura argi naturala ahalik eta gehi en aprobetxatzeko diseinatu dute, ahal den neurrian argiztapenean aurrezteko.

Pasealekua, frontoia eta padel pista 2009 urteko abenduaren 31n amaituta egon behar dira aurreikuspenak betetzen baldin badira. •



Oriako industrialdeko atzeko aldean 527 metrotako pasealekua egingo dute.



Buruntzaldeko Udal Euskara zerbitzuen web orria sarean /5

www.buruntzaldea.org web orrialdea martxan jarri dute eskualdeko Udal Euskara Zerbitzuek. Hain zuzen ere zerbitzu hauek eskaintako egitasmoak eta euskararen inguruko albisteak dira web gune dinamikoaren ardatza.

KIROLA ■ 2

100 neska mutil inguruk hartu zuten parte igeriketa jardunaldian

ALBISTEA ■ 3

Hauteskunde mahaietako ordezkarien zozketa egin zuen Udalak

ALBISTEA ■ 5

Porrotx pailazoak bisita egin zien Amaraun Ludotekako umeei larunbat goizean



- 10 ordu: astelehenetik ostegunera
- Txandaka ibiltzeko aukera (maila guztietan goiz zein arratsalde)

Matrikulaldia: otsailaren 19 arte
Bulego orduak: 08:30 - 19:15

- Hasierako mailan ez dago apuntatzerik (irailean baino ez dugu onartzen)
- Autoikaskuntzan plaza guztiak beteta.

Aurki egoitza berrian, kiroldegia ondoan!



Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia
Tel.: 943 36 16 21

Kirol emaitzak

Futbola

Oiartzun- Ostadar (II. Erregionala, igoera fasea) 1-6
 Urki - Texas Lasartearra (II. Erregionala, kopa) 5-2
 Ostadar - Vasconia (Emakumezkoen Liga, kopa) 1-1
 Ostadar - Intxaurrondo (I. Jubenila, igoera fasea) .. 4-0
 Urnieta - Texas Lasartearra (I. Jubenila, kopa) 1-2
 Ostadar- Touring (Kadeteen Ohorezko maila, kopa) ... 0-2
 Ostadar - Lazkao (Emakumezkoen KDT F-11, txapelketa fasea) 3-1
 Ostadar- Urola (Infantil Ohorezko maila, kopa) 1-1
 Aretxabaleta- Ostadar (Infantil txikia kopa) 1-0

Areto-Futbola

Denak Gazte - ISU Leihoak (Gipuzkoako Liga, I. Maila) .. 2-5

Herriko txapelketa

Lurra XXI- IOB H.K. 1-2
 Epel- Katanga 2-4
 Izkia - IOB H.K. 5-0
 Siglo XX - ISU Leihoak ... 1-13
 Ilargi - Ainhoa 1-9
 Jordi - Tragoxka (ez dugu emaitzarik lortu)
 Izarra - Buenetxea 3-3
 Morrison - Oria txiki ... 5-2
 Danena- Okela 3-4
 Lurra XXI- Obelix 5-3
 Biyona - Mayi 2-1
 Oria krist. - Viña del Mar .. 2-6

Etorkizuneko igerilariak Lasarte-Orian

■ 100 bat alebin eta benjaminek parte hartu zuten jardunaldian

Lehenengo astean, Eusko Jaurlaritzako Babes Zibilak eskatuta, kirol jarduerak bertan behera uztea erabaki zuten kirol erakunde desberdinek.

Lasarte-Oriako igerilekuan burutu behar zen Kirol Zehaztasun Ligako 2. Jardunaldia horietako bat izan zen, hala ere, Gipuzkoako Igeriketa Federakuntzak berehala aurkitu zion arazoari erantzuna, jardunaldia aste bete atzeratzea. Beraz, Kirol Zehaztasun Ligako 2. Jardunaldiak larunbata honetan izan du leku.

Hernani, Ordizia, Utike Usurbil, Tolosaldea eta Buruntzaldea Igeri taldeetako 100 bat benjamin eta alebin lehiatu dira bertan.

Jardunaldi honetan hiru igeriketa modalitateko bost probatan parte hartu zuten igerilari gazteek: 50 m. bizkar-igeriketan, 100 m. bizkar-igeriketan, 100 m. tximeleta, 200 m. bular-igeriketan eta taldekako 8x25 m. bular-igeriketan.

Buruntzalde Igeri taldeko neska eta mutilek lan ona burutu zuten bakarkako lehian, baina taldekako 8x25 m. bular-igeriketa proban nesken zortzikotea zorte txarra izan zuten, kanporatuak izan baitziren. •



Buruntzaldea Igeri Taldea - 2. jardunaldiko emaitzak

50 M. BIZKAR-IGERIKETAN
BENJAMIN NESKAK
 1. Ainara Garcia Riveiro (Sas-Zu) 58.68

100 M. BIZKAR-IGERIKETAN
ALEBIN MUTILAK
 1. Iker Ramos Valderrabano (Ond-Le) 1.40.74
 2. Inhar Lizarza Martin (S.Tere) 1.41.81
 3. Mikel Soto Hernandez (Amasor) 1.53.04

BENJAMIN MUTILAK
 1. Aitor Arruabarrena Alvarez (M.D.La) 1.41.30

4. Iñaki Hernandez Moreno (S.T.Li) 1.51.78

ALEBIN NESKAK
 8. Jone Vazquez Solano (Gar.La) 1.55.84
 9. Naiara Peris Martin (Ond-Le) 1.59.53

BENJAMIN NESKAK
 1. Naiara Lizaso Arregi (S.T.Li) 1.44.47

100 M. TXIMELETA
ALEBIN MUTILAK
 1. Pablo Ortega Ramos (Ond-Le) 2.11.69

ALEBIN NESKAK
 2. Uxue Botas Peñin (Ond-Le) 2.13.45

200 M. BULAR-IGERIKETAN
ALEBIN MUTILAK
 2. Jokin Alberdi Mendizabal (M.D.La) 3.48.00
 7. Iker Badallo Sanchez (L.Sibe) 4.24.05

ALEBIN NESKAK
 2. Clara Rodriguez Pejenaute (L.Sibe) 4.39.09

() - Parentesi artean, haurren ikastola edo ikastetxeren izena

Kiroletako oharrak

XV. Pala Txapelketa

Ostadarrek jakinarazi nahi du XV. Pala Txapelketarako izena emateko epea zabalik dagoela otsailaren 6ra arte. Beraz, parte hartu nahi duten bikoteek Ostadarreko bulegotik pasa behar dira izena emateko, asteleneretik ostiralera, 16:00etatik 20:00etara, edo 943360433 telefono zenbakira deituta.



Ainhoak erraz irabazi zion Oinarsori

Ainhoa saskibaloit taldeko mutilei bi partida falta zaizkie lehenengo fasea bukatzeko eta arrikutik kanpo, hau da, taularen erdi aldean mantentzen dira.

Aste honetan partida erraza jokatu dute, Ainhoako jokalarien beteranotasuna

gailendu baitzen Oinarsoko gatzetasunaren aurka.

Partida osoa aurretik egin zuten lasarteoriatarrek. Nahiz eta defentsan akatsak izan, erasoan ongi ibili ziren. Kontraerasoei esker, errenta handitzen joan eta amaieran 63 eta 35 irabazi zioten Oinarsori. •

LOKEko zozketako irabazleak agertu dira



Argazkian, Manuel Morales, LOKEko ordezkaria, eta Arantxa Izpurua saritua.

Lasarte-Oria Kirol Elkarteak gabonetan zozketatu zituen afarien banaketa egin zuen ostiralean.

Zenbaki sarituak 8400 eta 2365 izan ziren eta bi txartelak LOKEko judoko atalak

saldu zituen. Lehena, Dana-Onako afarirako zenbakia da eta Oiartzungo bizilagun bati egokitu zaio. Txintxardin Beltxako afaria, berriz, Arantxa Izpurua udal kiroldegiko langileak irabazi du. •

Martxoko hauteskundeetarako mahaikideak izendatu dituzte

Udal batzarrak ohiz kanpoko bilkura egin zuen ostiraleko 9:00etan, jendaurreko ekitaldian. Gai-zerrendan gai bakarra hizpide: martxoaren 1ean ospatuko diren hauteskundeetako mahailetako kideak izendatzea.

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Udal Batzarrak ohiz kanpoko bilkura egin zuen ostiralean, 9:00etan jendaurreko ekitaldian. Juantxo Morcillok, informatika saileko arduradunak, programa informatibo baten bidez martxoaren 1eko hauteskundeetan mahai elektoraletan egon behar duten arduradunen zerrenda atera zuen. Beraz dagoeneko mahai elektoraletako mahaikideak izendatuta daude. Mahaikideen zerrenda Donostiako Junta Elektoralera bidali dute, beraz, aurki mahaikide izango zareteno deialdia etxera iritsiko zaitzue.

Mahaikide izateari uko egiteko

Lasarte-Orian, martxoaren 1ean, 23 mahai elektoral egongo dira bozkatzeko aukera izango duten 13.894 herritarrentzat. Mahai bako-



Informatika saileko arduraduna den Juantxo Morcillok atera zuen zozketaren zerrenda programa informatibo baten bidez.

tzean 9 mahaikide egongo dira - 3 titular eta 6 ordezko-.

Norbaitek arazorik balu martxoaren 1ean mahai elektoraletan egoteko, Donostiako Junta Elektoraletan aurkeztu behar du arrazoa - Donostiako Epaitegietako Dekanoztan, Teresa de Calcuta plaza, 1 (Atotxa)- edo ondorengo telefono zenbakietara deitu behar du: 943 000 700 eta 943 000 728, asteleheneetik ostiralera goizez 9:00etatik 14:00etara eta arratsaldez

17:00etatik 13:00etara. Hala eta guztiz ere, Junta Elektora-

lak du azken hitza, hau da, aurkeztutako arrazoa balizkoa den edo ez erabakitzen du.

Xabier Egeak, udaleko idazkariak gogoratu zuen mahaikideek dagozkien mahai elektoraletan behar duten orduan azaldu behar dutela. Mahai elektoralera eratu eta kideren batek berandu azalduz gero eta berandutze horren frogagiri bat aurkeztu ezean, delitutzat jotzen dute. •

Mahai elektoraletan ez aurkeztea edo berandutzeagatik frogagiririk ez aurkeztea delitutzat jotzen dute

Sasoeta auzoan pantaila akustikoak jarriko dituzte

Donostiako Bigarren Ingurubideko lanak direla eta, datozen egunetan N-1 errepidearen ondoan, Sasoeta auzoan, babes moduan dauden zuhaitzak kentzen hasiko dira.

Zuhaitzak dauden lekuan horma bat eraikiko dute eta honen gainean pantaila akustikoak jarriko dituzte. Arduradu-

nek jakinarazi dutenez, lan hauek amaituta zuhaitzak berriro ere landatuko dituzte.

Osasun Elkarrekin egunez gehienez 55 dezibelio aholkatzen ditu. Lasarteoriarrek, berriz, 70 eta 74 dezibelio eta N-1 errepidea gertuago duten etxeek 75 dezibeliotik gorako zarata jasaten dute. •



Eguneko Zentroak asteburuetan ere emango du zerbitzua

Lasarte-Oriako Udalak Atsotabar zaharren egoitzako Eguneko Zentroaren zerbitzua zabalduta eta atzo martxan jarri zuen lehenengoz. "Eguneko egoera ekonomikoa onena ez bada ere, beharrezko ikusi dugu helduenei ematen zaien gizarte-laguntza hobetzeko esfortzua

egitea", udaletik helarazi dutenez. Beraz, asteleheneetik ostiralera egiten den bezala, 9:00etatik 18:00etara eskainiko dute zerbitzua larunbatetan eta igandetan ere. Dagoeneko, "Eguneko Zentroak dituen 15 erabiltzaileetatik 9k eskatu dute zerbitzu berri hau". •

IKASTAROAK

Grafologia ikastaroa

Gazteria eta Festetako sailak Grafologia ikastaroa antolatuta eta izen-ematea eskolak hasten diren egunera arte, otsailaren 19ra arte, zabalik egongo da. Astearte eta ostegunetan egongo da Manuel Lekuona kultur etxean, 19:00etatik 21:00etara eta martxoaren 26an amaituko da.

Ikastaroa egiteko interesa duten guztiak Manuel Lekuona kultur etxean dagoen Gazte Informaziorako Bulegoan izena eman beharko dute. Prezioa 20 eurotako izango da Lasarte-Orian erroldatukoentzat eta 35 eurotako gainontzekoentzat. •

SAN PEDROAK

Hiritarren proposamenak

2009ko San Pedro jaiaik parte-hartzaileak burutzeko asmoz, Gazteria eta Festetako sailak hiritarrei proposamenak emateko deialdia egin die eta honetarako bandoak jarri dira portaletan lasarteoriarrek animatuz.

Otsailaren 23a eta martxoaren 6a bitartean aurkeztu beharko dira proposamenak, idatziz eta egilearen datuekin Manuel Lekuona kultur etxean dagoen postontzi berdean.

Epea amaituta, sailak ideia guztiak aztertu eta zeintzuk gauzatu daitezkeen erabakiko du.

Departamentuak lasarteoriar guztiak, eta gazteak bereziki, gonbidatu nahi ditu parte hartzera, San Pedro jaiaik guztien gustura egin ahal izateko.

SANTA AGEDA

Santa Eskea asteazkenean

Santa Ageda bezperan, otsailaren 4ean ohi denez, herriko taldeak, makila eskuan, auzoetara aterako dira santa eskean.

Zabaletakoak arratsaldeko seitan abiatuko dira Antonio Blas plazatik. Baina, bihar entsegua egongo dute plazan bertan.

Erketzekoak 18:00etan Zumaburun duten egoitzatik hasiko dira eskean. Gaur 20:00etan egongo dute bigarren entsegua.

Takunekoek Bertso Eskolakokin batera 19:00etan Jalgitik abiatuko dira. •





Joxe Mari Irazusta eta Iñaki Aranzabal, web orrialdea egin duen enpresako ordezkariak prentsaurrekoan, Hernani eta Andoaingo euskara batzordeburuekin batera.

Buruntzaldeko Udal Euskara zerbitzuek www.buruntzaldea.org web orrialdea aurkeztu zuten aurreko ostegunean prentsaren aurrean. Buruntzaldea Euskaraz web guneak nagusiki, kirola eta euskarari buruzko informazioa jaso-

ko du momentuz, eta gero beste esparru batzuetara zabalduko da. Bertan jaso dira euskararen inguruko egitasmoak eta albisteak, eskaintzen diren zerbitzuak, eta interesgarriak diren baliabideak, besteak beste.

Aurkezpenean nabarmendu zenez, orrialde dinamikoa sortu nahi izan dute, herritarren beharretara edo hauen eskaerataz egokituak dena. Beraz, ekarpen eta iritziak jaso nahi dituzte web orrialdea berritzen joateko.

www.buruntzaldea.org web gune bizia

■ Orrialde bateratua aurkeztu dute eskualdeko euskara zerbitzuek ■ Bizirik mantendu nahi dute, uneoro herritarren beharretara egokitu ■ Euskara eta kirolari buruzko informazioa du

Aukera zabala eskaintzen du www.buruntzaldea.org web guneak. Eskualdeko euskara zerbitzuen egitasmo guztien berri ematen da web gune bateratuan, esaterako errenta aitopena euskaraz egiteko laguntza, apelliduak euskalduntzeko, lan munduko, merkatarientzako eta gurasoentzako kanpainen berri. Ardatza edo zutabea euskara zerbitzuen egitasmo ezberdinak dira. Baina badira beste hainbat atal: "Ba al zenekien" deiturikoan bitxikeriak emango dira eta "Pil pilean" sailean beste informazioen bat. Une honetan SMS lehiaketa bat ageri da.

Bestealde, eskualdeko datu soziolinguistikoak ematen dira, baita jardun ezberdinetarako ematen diren diru laguntzei buruzko informazioa, (euskara ikasteko, udako ikastaroetarako, errotoleak euskaratzeko, web orria euskaraz egiteko, enpresa plan-gintzentzako,...) eta eskualdeko euskaltegi, ikastetxe, euskara elkarte eta herri komunikabide guztien zerrenda. Buruntzaldeko euskara eragile batzuek eta euskaltegiatiko ordezkariak izan ziren aurkezpenean.

Hernani eta Andoaingo

Euskara Batzorde-buruek, hurrenez hurren, Idurre Lucas eta Petri Romerok eta lametza Interaktiboa, web orrialdea sortu duen enpresako Iñaki Aranzabal eta Jose Mari Irazusta aurkeztu zuten Hernaniko Biteri Kultur Etxean ostegunean eguerdiko 1etatik aurrera Buruntzaldeko euskara zerbitzuen web gunea. Informazioa modu errazean eman nahi zaio eskura herritarri, eta horregatik, Iñaki Aranzabalek azaldu zuenez, orrialdea erakargarria eta sinplea da, "kolore freskoak eta irudiak erabili dira".

Buruntzaldea Euskaraz

Ikusten denez denetarik du web orrialdeak, eskaintza oso zabala du, baina abiapuntua besterik ez da. Iñaki Aranzabal lametza enpresako ordezkariak adierazi zuenez, orrialdearen ezaugarrietako bat interaktibitatea eta aurrera begira izango dituen etengabeko berrikuntzak dira. "Bizirik mantendu" nahi da,

hau da, herritarren proposamenak jaso eta erantzun egingo zaie, etengabe informazio berriak eskaintzen saiatuko dira.

Informazioa hartzailearen arabera sailkatuko da: jada guraso berrientzat hainbat informazio, lotura interesgarri edota laguntzen berri ematen da: haur kanta, hitz goxo eta abar dituzte eskuragarri. Beste atal batean, merkatarientzat lagungarri diren informazioak bildu dira, edota ikasleentzat interesgarri diren.

Hainbat alor jorratzen ditu www.buruntzaldea.org helbidean euskarari eskainitako atalak. Jose Mari Irazusta lametza enpresako ordezkariak ere orrialde "dinamikoa" izango dela nabarmendu zuen: aurkeztu dela baina ez dela horretan geratuko, ideia asko dituztela garatzeko eta hartzaileek aukera izango dutela ekarpenak egin eta iritziak emateko. Horrek bideratuko du web orrialdearen norabidea.

www.buruntzaldea.org Buber sarirako izendatu dute Euskararen Sustapenaren arloko Web Gumerik Onena sailean

Beste gauza batzuk ere azpimarratu zituen, esaterako informazioa hartzaileari egokitu emango dela. Lehen lerroak guraso eta merkatariek izan dira, baina beste batzuk izango dira. Beste helburuetako bat ere aipatu zuen, "dinamizotasun horren bidetik eskualdean informazio boletina bat sortzea, informazioaren hautaketa bat egin eta harpidedunei bidaliko zaie maiztasun batekin posta elektronikoz. Harpidedunen iritziak jasotzeko ere bidea irekiko da".

Euskaltegien zerrenda

Laugarren detaile bat ere aipatu zuen Joxe Mari Irazustak, eskualdean dauden euskaltegi guztien eskaintza eta jardunen informazioa jasoko dela sasoi bakoitzean. Ikasleek daukaten maila ezagutzeko modua ere eskaintzen da, ikasten hasi aurretik ikasleak zein maila duen jakiteko galdeketa edo test bat ere jarri baita web orrialdean zenbait ariketa eta frogarekin.

Buruntzaldeko web gunea aurkeztu aurretik jada Buber sarrietako finalista izan da. Internet&Euskadi elkarteak antolatutako sariek urterotero, euskal web gumerik onenak aukeratzen ditu eta

aurten Buruntzaldea.org Euskararen Sustapenaren Arloko Web Gumerik Onena sailean izendatu zuten. Azkenean saria www.argia.com gunearentzat izan zen.

Udal ordezkariak

Prentsaurrekoan izan ziren Hernaniko Idurre Lucas eta Andoaingo Petri Romero zinegotzi eta euskara gaietarako batzorde-buruak.

Idurrek nabarmendu zuen, herritarren zerbitzuko hobetzeko ari direla lanean, herritarrek gogoan izan dituztela eta hizkuntzaren normalkuntzan teknologia berriek garrantzia handia dutela. Euskararen aurrera ere, informazioa emateko eta elkartrakerako bideak zabaltzen ari direla esan zuen. Petri Romerok ere Udalen funtzionamenduan informazioa eta Komunikazio Teknologiaik duten garrantzia azpimarratu zuen, eta berrikuntza horietan aitzindariak direla euskara zerbitzuak.

Web orrialde eskualdeko ikuspegiak egin dela eta "euskararen normalizazioan lan egiten duten eragile nagusien txokoa" aurkitu daitekeela jakinarazi zuen. •

Jon ALTUNA

Sorpresa handia Amaraun Ludotekan

■ *Porrotxek* Amaraun Ludotekako umeei bisita egin zien larunbat goizean

TXINTXARRI

Barre, algara, magia eta musuak, hauetaz guztietaz bete zen larunbat goizean Amaraun Ludoteka. Erruduna Lasarte-Oriako pailazorik bihurriena, *Porrotx*.

Haurrak urdurik zeuden sorpresaren zain, begiraleek magia egiten zuen norbait etorriko zela esan zieten. Pertsonaiari egingo zizkioten galderak prestatu eta abestu eta dantzatu zuten.

Begiraleek begiak itxteko eskatu eta *Porrotx* atetik sartzen ikustean, guztiak hasi ziren garrasika.

Magia egin zuen jarraian. Koloredun zapiak zakutxo batean sartu eta, neskatxa baten laguntzaz, zakutik ostadar bandera atera zuenean haur guztiak aho zabalik geratu ziren.

Jarraian galderen txanda izan zen, baina aurretik prestatutako guztiak dagoeneko

ahaztu zitzaizkien haurrei.

Orduan, bere magia erabiliaz, opariak egin zizkiren. haurrei.



Lehenik, *Porrotxek* berak egindako marrazkia zati txikitik puskatu eta, magiari esker, konpondu zuen eta, jarraian, *Piratak* ikuskizuneko posterra ustez hutsa zegoen kutxa batetik atera zuen. Bi opari hauek Ludotekarako izan ziren, baina txapak eta posterrak ere eraman zituzten haurrek etxera.

Hala ere, *Porrotx* ez zen esku hutsik bueltatu Amona Josefinarenera. Ludotekako haurrek egutegi bat eta haiek egindako marrazkiak oparitu zituzten eta.

Ostean, guztiak dantzatu eta abestu zuten batera.

Joan baino lehen, *Porrotxek* txokolate, marrubi eta txoko-marrubizko musuak banatu zituen Ludotekako haur eta begiraleen artean.

Era honetara, pailazoaren ogibidea ezagutzeaz gain, primeran pasa zuten etxeko txikiak Amaraun Ludotekan.

Goizaren filma

Arratsaldean, berriz, gaztetxoaren txanda izan zen Ludotekan. Eta hauek Goizaren filma musikala ikusteko aukera paregabea

izan zuten, palomita eta guzti.

Apaiz batzuk zuzentzen duten diziplina gogorreko udaleku batean gertatzen da istorioa eta bertan dauden 16 bat urteko neska-mutilen abenturak dira narratzen direnak musika eta koreografiak oinarritzat hartuz. •



Teknologia berrien erabilera.

Behar berezia duten ikasleentzako aholkularia.

- Hizkuntza eta entzumena lantzeko gela.
- Heziketa bereziko gela.
- Laguntzak.

Ingelesa 4 urtetik aurrera.

Garraio-zerbitzua

Lehen Hezkuntza
Sasoetako eraikuntzan

Haur-Hezkuntza
Zumaburuko eraikuntzan

Liburutegi-zerbitzua,
eskola-orduz kanpo.

Euskal kultura eta euskara bultzatzen ditugu



Lasarte-Orian,
zeure herrian!

Sasoeta-Zumaburu herri-ikastetxea

MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Otsailaren 2tik 13ra
Kalbario bidea 4 Tel.: 943 361226
Zumaburu 13 Tel.: 943 362274

BILERA

Otsailaren 3an 16:45ean
Zumaburuko eraikuntzan
2007. urtean jaiotako
umeen gurasoentzat



Haurrentzako antzerki hunkigarria



TXINTXARRI

Marie Jongh antzerki taldearen *Zer duzu negarrez, Marie?* antzezlana ikusi ahal izan zen larunbat arratsaldean Manuel Lekuona kultur etxean.

Haur eta guraso ugari hurbildu ziren kultur etxeko aretara Marie neskatilaren istorioa ezagutzera.

Aktore lana eta txontxongi- loen erabilera uztartzen diren antzezlana du Marie Jongh antzerki taldeak aurkeztutakoa. Hitzik gabea, aktoreen jokaerak eta musikak garrantzia handia dute istoria ulertzeko.

Zer duzu negarrez, Marie?

Antzezlanean haurtzaindegi bateko jabeak eta haren langile batek haur gaizto batekin

duten harremana jorratzen da. Haur gaizto hori Marie du. Ez du lorik egiten eta jokaera txarra du.

Haurtzaindegian, ezin diote neurria hartu eta gainera, gainontzeko umeen zainketa zailtzen du. Trikimailuak erabiltzen dituzte neskatoa mendean hartzeko, eta azken arte ez dira ohartzen haurrak maitasun falta izugarria duela. •

Nora Izagirrek *Haizea berria* saria eskuratu du

Haizea Berria sariak duela hiru urte sortu zituen *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak sektore desberdinetako Gipuzkoako hainbat pertsonaren lana saritzen ditu.

Aurtengo edizioan *Moda* eta diseinuaren txanda izan da eta Nora Izagirre diseinatzaile lasar-teoriatarren lana saritu dute.

Donostiako Maria Cristina hotelean burutu zen festa batean egin zen sari banaketan. Nora Izagirrek Javier Jauregi epaimahai kidearen eskutatik jaso zuen diseinatzaile onenaren saria. Noraz gain, Donostiako Noventa Grados arropa denda ere saritu zuten. •



Nora Izagirre erdian, Euskararen Maratoian egin zuen desfilearen ostean.



Ohitura den bezala, Lasarte-Oriako preso eta iheslarien senideek elkartaratzea egin zuten ostiralean udaletxe aurrean.

Langabeziaren ondorioak aztergai

TXINTXARRI

Emakumeen Zentro Zibikoan hilabetero egiten duten bideo-forumean *Los Lunes al sol* filma ikusi zen ostiralean.

Emanaldiaren ostean, Merche Humada psikologoaren laguntzaz, bideoforumeraren hurbildu ziren emakumeek langabezia eta honen ondorioei, hala nola, familia arazo edo egoera psikologikoari buruzko solasaldia egin zuten.

Hitzaldia

Bestalde, asteazkenerako hitzaldi bat antolatu dute zentroan bertan, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.



"La justicia como metodo para ser feliz" da hitzaldiaren izenburua eta Juanjo Urbietta,

garatze pertsonaleko orientatzailea, gonbidatu dute hitzaldia ematera. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

ZILÖ, artista lasartearren "The Artificial Smile Company" margo erakusketa. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan zehar.



Erakusketa

VIDAS MINADAS, 10 AÑOS DESPUES, Gervasio Sanchezen argazki erakusketa. Asteleheneetik ostiralera irekia. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Asteazkena, 4

Hitzaldia

JUANJO URBIETA, garatze personaleko orientatzailea, gonbidatu dute "La justicia como metodo para ser feliz" hitzaldia ematera. Emakumeen Zentro Zibikoan, 18:00etan, GAZTELANIAZ



80. hamarkadako Ingalaterra osteguneko filman

THIS IS ENGLAND filma eskainiko du Okendo Zinema Taldeak. Shane Meadows zuzendariaren filma da eta 80. hamarkadaren hasierako Ingalaterran dago girotua. Shaun bakartiak, hamabi urte ditu, eta kostaldeko herri gris batean bizi da. Bere aita Maldibetako gerran hila gertatu da. Opor hauetan zehar, gizon-eredu berriak aurkitzen ditu, tokiko skin batzuk adoptatzen dutenean.

OSTEGUNEAN, HILAREN 5EAN
KULTURETXEAN, 22:00ETAN
SARRERA: 4,15 EURO

Ostirala, 6

Kontzertua

SARA bakarariaren kontzertua Udaleko Gazteria Sailak eta Xpressionk zirkuituak antolatu. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

Larunbata, 7

Djen emanaldia

ZILÖ herriko Djaren emanaldia berak jarritako erakusketa inauguratzeko. Ttakuntronik zirkuituaren barruan. Jalgi kafe-antzekian, 0:00etatik 03:00etara.



Igandea, 8

Zinea

MADAGASCAR 2 haurrentzako filma. Sarrera: 3, 15 euro. Kulturetxean, 17:00etan.



Larunbata, 14

Antzerkia

TORMESEKO LAZARO TXIKIA haurrentzako antzerkia eskainiko du Malas Pulgas antzerki taldeak 5 urtetik gorako haurrentzat. Sarrera: 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan, EUSKARAZ



Igandea, 15

Zinea

LEPEL haurrentzako filma. Sarrera: 3, 15 euro. Kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ



Liburutegiko ordutegia



Asteleheneetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Euskal Inauterien entsaioak

Euskal Inauterien konpartsaoko antolatzaileak jakin arazi nahi dute entsaioak hasi direla. Hauek Landaberri BHI egoitzan (REM ohia) egingo dira astearte eta ostegunetan 20:00etatik 21:00etara. Parte hartzeko entsaio egun batean agertzea besterik ez duzue, animatu!!

Bizilagunen Elkarteko marrazketa eta pintura eskolak

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkartek jakinarazi nahi du marrazketa eta pintura eskolatan lekua badagoela. Interesa dutenek izena emateko, asteazkenetan eta ostiraletan egin behar dute arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara bitartean kulturetxeko bigarren solairuan.

Ikastaroak

Jantzi tradizionalena asteazkenetan 15:00etatik 17:00etara egingo da otsailetik maiatza bukaera arte Ttakunek Erribera kalean duen lokalean. Ikastaroak 40 euro balio ditu eta materiala bakoitzak jarriko du. Bainika egiteko ikastaroa asteartetan egingo da 15:00etatik 17:00etara otsaila eta martxoan lokal berean eta 20 euro balio du. Izena emateko edo informazioa jasotzeko Ttakunetik pasa behar da edo deitu, 943 371448. Ttakuneko bazkideek %10eko beharpena izango dute ikastaroen prezioan.

Aranora irteera

Ttakuneko Oinatz taldeak Aranora irteera antolatuko du otsailaren 8rako. Bertara joateko txartelak Ttakun Kultur elkartearen eskuratu daitezke.

Helduen txartelak 18 euro balio ditu eta 6 euro, aldi, haurren. Txartelak erosteko azken eguna otsailak 4 izango da.

Informazio gehiagorako hurbil zaitzete Ttakunera edo 943 371 448 zenbakira deitu.

Mus Txapelketa Lasartearran

Lasartearra Elkartek jakinarazi nahi du irekita dagoela XXXII. Mus Txapelketan izena emateko epea. Interesa dutenek elkartetik pasa daitezke otsailaren 22a bitartean.

Zirkoa inauterietan

Ttakunek deialdia egin nahi die herritarrei Zirkoa Mundialean parte hartzeko. Izena emateko azken eguna otsailaren 11a izango da eta interesa dutenek Ttakunetik pasa behar dute edo deitu 943

371448 telefonora. Gogoratu parte hartu nahi dezutenoi laguntza eskainiko dizuela elkarteak: ideak garatzeko garaian, jantziaren erudia prestatzerakoan, materiala lortzeko gomendioak... Bide batez herritarrei beraien balkoi eta leihoak dekoratzeko eskaera egin nahi die Ttakuneko, herria girotzeko. Nahikoa da koloretako zapi batzuke edo puxikak ipintzea, animatu!

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxari@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe

‘Orkestratan edozein lanetan bezala, lanpostu finkoa lortzea zaila da’

Nerea EIZAGIRRE

Tomas Ruti gazte lasarteoriarrak bidai luzea egin du ikasketak direla eta, Lasarte-Oriatik Irun eta Iruñeako kontserbatorioetara, baita Londreseko *Royal Academyra* ere. Hainbat orkestratan parte hartu ondoren, egun Andoaineko musika eskolan dago ordezkapen bat egiten eta *Donostia Ensemble* hari laukoteko kidea dugu. Hala ere, orkestra batean leku finkoa lortzea da bere helburua eta horretarako ahalegin guztiak egingo dituela onartu digu.

Zergatik sortu zen *Donostia Ensemblen* hari laukotea ?

Laukotea sortu genuenean kamara egiteko gogo asko genituen eta behin hasita ba ahalik eta gehien egiteko gogoekin gaude. Ez gara honetaz biziko baina ahal dugun gehiena jotzea eta ondo pasatzea dugu buruan.

Baina ez dituzue obra klasikoak bakarrik jorratzen, ezta?

Guk bi atal jorratzen ditugu, batetik egitarau klasikoak egile ezagunak edo gauza oso klasikoak edo pisu handia dutenak, eta gero badugu beste programa bat ba Hegoamerikako musika, egungo musika edo jazza ere uzartzen duguna.

Altxerrin edo Fnacen egin ditugun kontzertuetan, esate baterako, klasikoak mugimendu batzuk eta kubatar musika, tangoa, jazza edo moldaketak nahastu ditugu eta harrera ona izan dugu.

Elizetan eskaintzen ditugun kontzertuetan, egitarau klasikoak mantentzen dugu. Agian propinarekin bat edo modernoa da. Baina taldean gehienak klasikoak gatoz eta honelako programak erabakitzen ditugu.

Aldaketa handia da kamara taldean jotzea?

Nire ustez, kamara egitea da

musikari batentzat gauzarik politena. Talde txikia da, entzun behar zaituzte, ez daude beste hamalau instrumentu batera jotzen, lau pertsona gara bakoitzak bere ahotsarekin eta ahots guztiak egon behar dute hor. Erantzukizun handiagoa eta gozamen handiagoa da.

Euskadiko Orkestran ere laguntzaile ibiltzen zara...

Bai, baina ez da bakarra. Aurretik Et Carnatusen egon nintzen eta proiekturen bat dagoenean deitzen naute. Galiziako Orkestran ere eta beste gutxi batzuetan ere. Baina gehienbat Euskadiko eta Bilbokoaren artean nabil freelance lanetan.

Freelanceak daude musika klasikoan?

Pila dago, ikaragarri da. Batzutan laguntzaile gehiago dago orkestrako kide baino. Egitarau batzuetarako kontratatua dagoen jende asko dago. Askotan orkestrek lan karga handia dute eta hemen ez dago txandaketak egiteko jende askorik. Obra batzuetan honek honela eskatuta orkestra handitu behar da, sinfonia handia delako. Plaza finkoak atera ezean, hobe da edo merkeagoa zaie musikariak laguntzaile gisa izatea. Honi esker aukera duzu orkestra handiekin jotzekoa.

Freelance asko dago, baina ez da Ingalaterran haina. Han gehiegizkoa da, ehuneko handi bat laguntzaileak dira. Eskerrak hemen ez dela hango egoera errepikatzen. Baina etorkizunean agian...

Beraz, musika klasikoak bizi ahal da?

Ez da erraza, baina jotzeaz bizi naiz. Ez dago plaza gehiegi eta zailak dira lortzen. Edozein lanetan bezala gauza finkoa lortzea zaila da. Orkes-



Tomas Ruti lasarteoriatarra, ezkerretik lehenengoa, *Donostia Ensemble* hari laukoteren kontzertuan.

trak ez dira salbuespen, azken finean enpresak dira eta gutxi gora behera guztiok berdin gabilta. Gainera, beti daude gauza desberdinak, orkestrak, laukotea, klaseak noizbehinka eta beste proiektu batzuk ere.

Klasikoa edo modernoa zer nahiago?

Klasikoa modernoa ahaztu gabe. Momentuan gogoko edo hunkitzen dizuna. Nire egunerokotasunean gehiena klasikoak da. Baina horrek ez du esan nahi gogoko ez dudarik.

Zure etorkizuna non dago?

Printzipioz orkestran jotzea nahiko nuke etorkizunean. Irakasle bezala gustura nabil, orain ohartu naiz horretaz. Baina nire helburua orkestra da. Probak egiten eta ikasten jarraituko dut. Bi gauzekin pozik egongo naizela badakit. Hala ere, orkestrara iristeko bidea egingo dut. •

Musikari ezagunen lanak ekarri zituen *Donostia Ensemble* hari laukoteak



Tomas Ruti eta *Donostia Ensemble* kamara taldeko kideak Danok Kideren IV. Musika Topaketetan parte hartu zuten ostiralean.

Brigitarren komentura hurbildu ziren herritarrek hiru musikari klasiko ezagunen, Bach, Mozart eta Dvoraken

lanak entzuteko aukera izan zuten hari laukotearen eskutik.

Sentsibilitate handiz jo zituzten *El arte de la fuga*, *1go eta 3. dibertimento* eta *Americano 12. laukoteko* mugimenduak. Bukaeran, entzuleek txalo zaparrada handia eskaini zieten esker gisa. •

MATRIKULA ZABALIK... URNIETAN
Otsailaren 2tik 13ra

Bigarren Hezkuntza (DBH) Batxilergoa Lanbide Heziketa
SALESIANOS URNIETA SALESIARRAK
www.salesianosurnieta.com 943 551 789

Giro lasai eta arduratsuan ikasi nahi baduzu!
BILERA INFORMATIBOA / REUNIÓN INFORMATIVA - Otsailak 7, 11:00 etan